

Bernardoren gorazarrea (himnoa)	San Bernardoren arrastoan (abuztuaren 20)
Jatorrizkoa, Migel Antoni bidalia. San Bernardo, zisterterra. Jaia: abuztuaren 20an.	(Migel Anton Mendizabal) Doinua: Azken afari ezkeroz Jauna
<p>1. Lurrak bere kimuak botatzen dituen bezala, baratze eta soro batek bere hazia hazarazten duen bezala, horrela dabil Bernardo zuzentasuna haz dadin eta herriek Jainkoaren aintza kanta dezaten.</p> <p>2. Horrela dabil naturak Jauna aintzatu dezan, natura izan dadin gizakiaren bake eta ongizate, natura izan dadin gizakiaren egoitza gozo bizi den guztian, natura izan dadin boteretsuek eta dirudunek amets.</p> <p>3. Guztiak dezaten bilatu bakeak dakarren aberastasuna, guztiak bila dezaten lurrak eragiten duen esperantza eta gizakiaren bihotzak bizi duen antsia: Jainkoak emana den lurrak betetzen ahal dituen.</p> <p>4. Jainkoak berak bezala, maitatzeagatik maite du Bernardok, ez beste ezergatik: «Maitatzeagatik maite dut». Maitatze hutsagatik. Maitasunez nahi dio erantzun bere kreatoraileari: bere burua maitatuz, natura maitatuz, mundua maitatuz.</p> <p>5. Eskerrak Jainko Aitari, begirunez, eskerrak Semeari, anaikor, eskerrak Espiritu Santuari, berak eman arnasaz,</p>	<p>1 Lurrak kimuak bere garaian botatzen ditun bezala, eta baratzak hazi ernetan duen aukera zabala, modu berean juzka gentzake Bernardoren eginala ohartaraziz Jainkoak gudan duen egizko itzala.</p> <p>2 Horrela dabil naturbideetan aintzatu dezan Jainkoa gizakiaren ongizatea bide hortatik bait doa, bera izanik egoitza eta bizitoki oparoa boteretsuak eta aberatsak hurbiltzeko abaroa.</p> <p>3 Izan dezagun bake giroak dakarren ongizatea, gure arteko goratarrea bizitzeko aterpea, gizakiaren bihotzak luza dezala borondatea horri eskerrak ezagutzeko lur hauen asebeta.</p> <p>4 Jainkoak berak maite duena Bernardok ere maite du eta maitatze hutsarengatik hartu du bere eredu, kreatorailea izan denari gau eta egun erregu geure burua eta mundua dena maite dezakegu.</p> <p>5 Eskerrak berriz Jainko Jaunari, eskerrak seme anaikor eta Espiritu Santuari diogun horrenbeste zor,</p>

bete gaitzala laguntzaz, Bernardo bezala, naturan eta hurkoagan Jainkoa hurbilago ikusten. Amen.

Bernardo gisan bete gaitzala animoso eta jator hurbilagoan senti gaitezen larrialdirik badator.

2020ko abuztuan